

## PSIKOLINGUISTIKA

### 4.GAIA

#### TESTA

1. Predikatu ez-ergatiboak eta ez-akusatiboak bereizi daitezkeela esateko ebidentziarik ba al dago?

1. Bai, prediktu ez-akusatiboak iragankorrak bezala portatzen dira bietan egilea dagoelako.
2. Ez, ez dago ebidentziarik.
3. Bai, ez-akusatibo hipotesiak erakusten duen bezala, ez-akusatiboak ez-ergatiboak baino errazagoak dira prozesatzeko deribazioan mugimendua gutxiago jasaten dituztelako.
4. Bai, hizkuntza bakoitzean test sintaktikoak egon ohi dira, eta ebidentzia dugu erantzun denboretatik, fMRI irudietatik, begi mugimenduetatik eta afasiadun pazienteengandik.

2. Carreiras eta kideen (2010) lana kontuan hartuta, kontsideratu hurrengo egiaztapena:

*Subjektuzko erlatibozko perpausak unibertsalki errazagoak dira objektuzkoak baino.*

1. Zuzena, ordena lineala dela eta, hizkuntza guztietan subjektuzko erlatibozko perpausak objektuzkoak baino errazago prozesatzen direla ikusi da.
2. Zuzena, gertutasun estrukturala dela eta hizkuntza guztietan subjektuzko erlatibozko perpausak objektuzkoak baino errazago prozesatzen dira.
3. Okerra, Carreiras eta kideek (2010) erakutsi zuten hizkuntza ergatiboetan (euskaraz), subjektuzko erlatibozko perpausak objektuzkoak baino zailagoak direla prozesatzeko subjektua delako morfologikoki markatzen den elementua (ERG).
4. Okerra, Carreiras eta kideek (2010) erakutsi zuten hizkuntza nominatiboetan (euskaraz), subjektuzko erlatibozko perpausak objektuzkoak baino zailagoak direla prozesatzeko subjektua delako morfologikoki markatzen den elementua (NOM).

3. Perpausen ulermen prozesuan...

1. Entzuten goazen hitzak modu inkrementalean inkorporatzen ditugu gure analisi sintaktikora.
2. Ez dugu analisi sintaktikorik egiten, besterik gabe hitzen arteko erlazio semantikoak atertzen ditugu.
3. Batzuetan ez dugu analisi sintaktikorik egiten, beste batzuetan inkrementalki egiten dugu eta beste batzuetan bukaerara arte itxaroten dugu analisia egiteko.
4. Hitz guztiak ikusi arte itxaroten dugu analisi sintaktikoarekin hasi aurretik.

4. Kotsideratu bi esaldi hauek:

1. Nire bizilaguna oso zaharra da eta igogailua duen beste eraikin batera joango da bizitzera datorren hilean.
2. Oso igoigailua bizitzera de hilean bizilaguna duen eta zaharra datorren nire da baina eraikin beste joango.

Zein gordeko dugu hobeto memorian?

1. Biak antzera, luzera bera dutelako.
2. a bigarren aukeran garden-path efektua jasango dugulako.
3. b deigarriagoa delako.
4. a egitura sintaktikoa duelako eta horrek esaldia multoetan (chunk) gordetzeko aukera ematen digulako.

5. Honako esaldia gramatikala al da? *kolorerik gabeko ideia berdeek haserre batean egiten dute lo.*

1. Bai, euskal gramatikaren arauak jarraitzen dituelako, nahiz eta semantikoki zentzurik ez izan.
2. Bai, agertzen diren hitz guztiak existitzen direlako.
3. Ez, sasi-hitzak dituelako.
4. Ez, euskal gramatikaren arauak jarraitzen dituen arren semantikoki zentzurik ez duelako.

6. Garden-path modeloaren arabera, zein momentutan berranalizatu beharko du esaldia analizatzaile sintaktikoak (parserrak)? *The teacher saw the student was drinking a coke.*

1. Esaldi honetan ez da garden-path efekturik gertatuko.
2. *was* entzutean, analizatzaile sintaktikoak objektu moduan analizatua zuen *the student* mendeko perpausaren subjektu gisa berranalizatu behar duelako.
3. *a coke* izen sintagma entzutean, analizatzaile sintaktikoak objektu moduan analizatua zuen *the student* mendeko perpausaren subjektu gisa berranalizatu behar duelako.
4. *the student* izen sintagma entzutean, "to see" aditza ingelesez intransitiboki erabiltzen delako gehienetan.

7. Garden-path modeloan, *lete closure*-ak dio:

1. lotu datorren materiala etorri ahala konpatiblea den egiturarekin.
2. lotu datorren materiala nodo gutxien sortzea eskatuko dizun egiturara.
3. hartu kontuan testuingurua datorren hitza prozesatzeko.
4. ez lotu materialik esaldiko hitz guztiak jaso arte.

8. Zereki erlazionatuko zenuke P600 osagaia?

1. urraketa pragmatikoarekin
2. urraketa fonologikoarekin
3. urraketa semantikoarekin
4. urraketa sintaktikoarekin

9. Euskararen hitz hurrenkerari dagokionez, Erdozia eta kideen (2009) lanak erakutsi zuen:

1. SOA hitz ordena OSA hitz ordena baino azkarrago irakurtzen dela eta akats gutxiago egiten direla.
2. OSA hitz ordena SOA hitz ordena baino azkarrago irakurten dela eta akats gutxiago egiten direla.
3. SOA hitz ordena eta OSA hitz ordena irakurtzeko garaian, biak antzera irakurtzen direla eta akats kopuru antzekoa egiten direla.
4. ASO hitz ordena dela euskaraz hitz ordena kanonikoa.

10. Bornkessel eta Schlewskiren (2006) modeloan perpausen prozesamendua 3 fasetan bereizten da, eta horietan honakoa gertatzen da:

1. Bornkessel eta Schlewskiren (2006) modeloan bi fase besterik ez dira bereizten.
2. 1 (prominentzia/loturak konputatzen dira, adb. egile rola asignatu) 2 (hitzak antzematen dira, eta hitz horien kategoriak) 3 (aurrekoa zuzena dela egiaztatzen da)
3. 1 (hitzak antzematen dira, eta hitz horien kategoriak) 2 (prominentzia/loturak konputatzen dira, adb. egile rola asignatu) 3 (aurrekoa zuzena dela egiaztatzen da)
4. 1 (hitzak antzematen dira, eta hitz horien kategoriak) 2 (aurrekoa zuzena dela egiaztatzen da) 3 (prominentzia/loturak konputatzen dira, adb. egile rola asignatu)